



ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

GAUTENA

GUIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA



Jarduera Txostena
2014



GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

C/ Francisco López Alen, 4
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Apartado 1000
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943 21 53 44 / 21 52 49

Fax: 943 21 52 39

info@gautena.org

www.gautena.org



AURKIBIDEA



AURKEZPENA

2

1. ZERBITZUAK

3

1.1 Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

3

1.2 Hezkuntza Zerbitzuak

4

1.3 Eguneko Arreta Zerbitzua

6

1.4 Etxebizitza Zerbitzua

8

1.5 Familiei Laguntzeko Zerbitzua

9

2. JARDUERA

12

2.1 Ezagutzaren kudeaketa

12

2.2 GURASO ESKOLA familientzako prestakuntza-plana

12

2.3 Autismoari buruzko hitzaldi-zikloa

12

2.4 URDINDUZ autismoaren ibilaldi solidarioa

13

3. URTEKO KONTUAK

14

3.1. Egoeraren balantzea

14

3.2. Eraitzen kontua

14



Idazki honen bitartez gure elkartearen 2014ko txostena aurkeztu nahi dugu.

2014. urtean, indarrean den plan estrategikoaren hirugarrenean, eguneroko jarduerari eutsi diogu elkartearen zerbitzuei eta sektorean dauzkagun aliatu nagusiei dagokienez.

Instalazioen hobekuntzaren ikuspuntutik, Eibarko lokala eraberritzeari ekin diogu, eskualdeko Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzuari eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuari erantzuten dienari.

Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzuari dagokionez, beste zerbitzuetatik bideratutako kasuak ugaritu egin dira. Horrek mahaira atera du berriro ere

eskari-hazkunde horri erantzun zuzena eman behar izateak duen garrantzia, eta gai horren inguruan lanean gabiltza une honetan Herri Administrazioarekin batera, Osasun eta Gizarte Politika sailetan.

Hezkuntza Zerbitzuak, hamazazpi ikasgelatan banatuta, Gipuzkoa osoko laurogeita hamar haur eta gazteri eman die laguntza.

Eguneko Arreta Zerbitzuak, halaber, ehun pertsona helduri laguntzen die dagoeneko, eta azken urteetan gero eta eskari handiagoari erantzun behar izan dio bere instalazioetan, Aldundiaren laguntzaz betiere. Dena dela, zailtasunak daude oraindik Integratutako Unitateek beharrezkoak dituzten espazio berriak bideratzeko orduan, eta urteak daramatzagu aldarrikapen hori bera Aldundiari planteatzen.

Etxebizitza Zerbitzuak bere sei etxeetan dituen hirurogeita hamar lagunentzako plaza iraunkorrei heldu die. Zerbitzu hori eskaintzeko itxarotzerrenda bat sortu berri da, eta etorkizunean hari erantzun ahal izatea espero dugu.

Familiei Laguntzeko Zerbitzuak autismoaren espektroko nahasmena duten pertsonen eta haien senideen aldeko laguntza-lerroak zabaltzen jarraitzen du. Arlo horretan langile gehiagoren falta sumatu dugu, lan handiagoa egiteko aukera emango liguketenak, gure laguntza jasotzen duten pertsonen eta familien kopuruaren hazkunde-arekiko zein profil aniztasunarekiko modu koherentean. Halaber, desiragarria litzateke giza baliabideak bideratu ahal izatea Aisialdiaren eta Gizarte Parte-hartzearen arloko eginbideez arduratzeko.

Autismoaren Mundu Eguna zela eta (apirilak 2), GAUTENAK Ibilaldi Solidarioa egin zuen Donostian, Tenisetik Bulebarrerainoko ibilbidea gauzatu zuena eta parte-hartze arrakastatsua eta hedabideetan eragin nabarmena izan zuena.

Bestelako gaiei dagokienez, GAUTENAK bere esku-hartzearen kalitatea hobetzeko lanean jarraitzen du: gure laguntza jasotzen duten pertsonen eskubideetan oinarritutako filosofian sakondu dugu, Bizi Proiektuak identifikatzeko aurrerapenak egin ditugu, tentsioari eutsi diogu gure zereginaren ikuspegi etikoa hobetzeari begira eta, azkenik, kalitatea aintzatesten duen FEAPS

kalitate-ereduaren ziurtagiria lortu dugu, bizi-kalitatearen, etikaren eta kudeaketa-kalitatearen ardatzak biltzen dituen. Halaber, I+G+B arloko ekimenak babesten jarraitu dugu.

Irailean, ekitaldi bat antolatu zuen

GAUTENAK elkartearekin 25 urtez edo gehiagoz lan egin duten

pertsonei esker ona adierazteko. Hogeita bost urtez baino gehiagoz AEN duten pertsonen eta haien familien ordezkari izan diren lagunen aurrean, profesional bakoitzak opari bana jaso zuen, Nestor Basterretxea eskultore handiak GAUTENAREN 25. urteurrenerako egin zuen obraren erreplika hain zuzen. Ekitaldiak arrakasta handia izan zuen langileen artean eta etorkizunean errepikatu egingo da.

GAUTENAK eutsi egiten die sektorean izan ohi dituen lankidetzaleroei, bai bertakoak, bai eta nazioartekoak ere. Era berean, hainbat erakunderekiko elkarlanari eutsi dio, lan-bisitak jasota eta bere langileek beste zenbait erakunderen prestakuntza-prozesuetan parte hartuta.

GAUTENAK, aurtan ere, eskerrak eman nahi dizkio Euskadiko Herri Administrazioari emandako laguntzagatik –hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun Sailei–, bai eta gure erakundearen sostengu ekonomikoa bermatzen duten hainbat udal, enpresa eta partikularri ere.

Agur bero bat.

ZUZENDARITZA BATZORDEA



I. ZERBITZUAK



1.1 Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

- 2014an, kasu berrien kopuruak gora egin du: 130 kasu berri diagnostikatu ditugu, eta horietatik 89 pertsonak AEN dutela egiaztatu dugu. Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzura bideratu ditugu.

- Arreta-modalitate berriak garatzen jarraitu dugu, haurrentzat, nerabeentzat eta gurasoentzat. Era berean, arreta goiztiarrari garrantzi berezia eman diogu.

- Eibarko lokala hobetzeak eragin zuzena du eskualde horretan zerbitzua eskaintzeko baldintzen hobekuntzan.



DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUAREN JARDUERA, 2014

Zerbitzuan artatutako kasu berriak	130
Egindako arreta-kontsulta kopurua	6.792
Ebaluazioa/diagnostikoa egiteko kontsultak	414
Hurrenez hurreneko kontsultak	632
Banakako psikoterapiak	4,544
Taldeko psikoterapiak	1.557
Taldekoak, familiak	4
Baja kopurua	11
Atzerapenaren adierazleak	
Hitzordua eskatu denetik pazienteak zentroan hartu arte igarotako egunak	4
Pazientea zentroan hartu denetik lehenengo hitzordua izan arte igarotako egunak	13
Lehenengo hitzordua izan denetik diagnostikoa itzuli arte igarotako egunak (*)	60
Diagnostikoa itzuli denetik tratamendua hasi arte igarotako egunak	15

(*) Autismoa diagnostikatzeko kasu bakoitzean beharrezkoak diren proba guztiak egiteko behar den denbora ere sartzen da fase horretan. Hala ere, esan beharra dago talde klinikoarekin lehenengo lau bilerak egin ostean, familiak jada hasierako diagnostiko bat izaten duela.



I. ZERBITZUAK

1.2 Hezkuntza Zerbitzuak

 Bi ikasgela tokiz aldatu dira 2014ko irailean, eskualdeko Berritzeguneak adierazitakoa jarraiki. Alde batetik, Eibarko Arrateko Andra Marin zegoena, Elgoibarko Herri Eskolara eraman zen eta, bestetik, Bergarako Mariaren Lagundian zegoena, herri bereko San Martin Agirre eskola publikora.

 Iazko 2013-2014 ikasturtea 91 ikaslerekin amaitu genuen; 2014-2015 ikasturte

honetan kopuru horrek hazkunde txikia izan du, 92 ikaslara iritsiz. Horietatik, zortzi dira eskolatzea denbora banatuan jasotzen dutenak. Irakasleei dagokienez, urte honek berri txar bat ekarri digu: Mariví Cundín lankidearen heriotza, Summa Aldapetako gelako hezitzailea eta elkarteko erizaina zenarena.

 Hezkuntza Sailari dagokionez, 2014-2015. ikasturtea zalantza askorekin hasi zen, murriztu egin baitzuten bi ikasgela bereziki

GAUTENAREN HEZKUNTZA ZERBITZUAREN IKASGELEN BANAKETA IKASTETXEEN ARABERA		
IKASTETXEA	KOKAPENA	IKASLE KOPURUA
La Salle Berrozpe Ikastetxea	Andoain	6
Mariaren Lagundia	Bergara	5
Mogel Isasi Institutua	Eibar	5
Arrateko Andra Mari	Eibar	5
La Inmaculada	Hernani	5
Gurutzearen Alabak Ikastetxea	Hondarribia	6
Intxaurrondo Ikastola	Donostia	5
San Ignacio Ikastetxea	Donostia	5
La Salle Ikastetxea	Donostia	6
Karmelo Ikastetxea	Donostia	6
Oleta Ikastola	Donostia	5
Summa Aldapeta	Donostia	6
Langaitz Ikastola	Errenteria	6
La Salle San José	Zarautz	5
La Salle San José	Beasain	4
La Salle San Martzial	Irun	6
Laskorain Ikastola	Tolosa	6
GUZTIRA		92

zailen laguntza; hori dela eta, kontaktu ugari abiarazi ziren hainbat mailatan, bai Probintzia Ordezkaritzan, bai Lakuan.

 Urrian Cristina Uriarte Hezkuntzako sailburuaren bisita jaso genuen, sailburuordeakin eta kabineteburuarekin batera. La Salle - Donostiaren zuzenda-

ritzarekin elkarlanean Hezkuntza Zerbitzuaren aurkezpen orokor bat egin zen, haren etorkizunerako mehatxuak eta aukerak plazaratuz, eta zentro horretako ikasgelari bisita egin zitzaion.

 Azken urteetan GAUTENAK antolatutako garraio-zerbitzua erabiltzen duten familiei



kuota ordainaraztera behartuta egon ondoren, aurtan Hezkuntza Sailari eskatutako diru-laguntzak garraioaren gastu osoa estaltzera heldu dira eta, hortaz, ordaindutako kuotak itzuli zitzaizkien familiei.

Autismoaren nazioarteko egunarekin batera, gure gela egonkorrak dituzten hainbat eskolatan ekimenak antolatu genituen gainerako ikasleek eta irakasleek bai gaitza eta bai hartara hurbiltzeko modua ere hobe ezagutu dezaten. Zentroetako zuzendaritza-taldeek egindako balorazioa oso positiboa izan da eta zenbait kasutan 2014-15 ikasturterako sentsibilizazio-ekimen sistematikoagoak gauzatzeari leku eman dio.

Otsailean FEAPSen kanpo-ebaluazioa egin zen, ebaluatzaile-taldea Summa-Aldapetako gelakideen familiekin elkartu zelarik, ebaluatzaile batek gelako ikasleekin gauza bera egiten zuen bitartean. Horrez gain, elkarriketak egin ziren gela egonkorretako beste bi irakaslerekin ere eta

ebaluazio-taldeak elkarriketen inpresio oso positiboa helarazi zigun.

Berrikuntza-taldee dagokienez, ekainean bukatu zen ikuspegi sentsorialaren aldetik laguntza handiagoa behar duten ikasleei eman beharreko arretan sakontzeko lana.



GAUTENAn Ikerkuntzarako Aholkularia den Joaquín Fuentesek, 2014ean Donostiako Urrezko Danborra jaso zuen.

Amaierako dokumentuan sarrera teoriko bana jaso da noranzko bakoitzeko, bai eta landu beharreko helburuak, materialak, erreferentziazko webguneak etab. jasotzen dituen desglose bana ere. Irailean berrikuntza-talde berri bat sortu zen komunikazioaren arloan eta bertan gela egonkorretako ikasleen kasuak aztertu eta metodologiak zein estrategiak berrikusten dira, bideoak erabiliz eta logopeda baten laguntzaz.

Beste alde batetik, Adimen Ezintasuna

dutenen aldeko Elkarleen Euskal Federazioaren (FEVAS) koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitu dugu, hezkuntza-aldiarekin lotutako gaien inguruko segimendua egiteko. Azaroaren 29an familiekin elkartu ginen Bilbon eta topaketaren gaia honako hau izan zen: «Babesetik norberaren gidaritzara». Angels Ponce izan zen gure artean txostengile gisa.



I. ZERBITZUAK

Hezkuntza Zerbitzuko zenbait profesional estatu mailako ekitaldi interesgarrietan parte hartu dute, eta arduraduna eta irakasleren bat ere txostengile aritu dira autismoarekin zein bestelako esparruekin lotutako elkarteetan. Esaterako, AEN duten pertsonentzat egokitutako literaturaren inguruko txosten batean parte hartu dute, Gipuzkoako agiritegietako, liburutegietako eta dokumentazio-zentroetako langileen topaketara bideratua.

Aurten, zerbitzutik ikasgela bakoitzeko profesionalen ustez hobetu beharreko alderdien analisia egiteko xedea hartu dugu. Hobetzeraz bideratutako galdetegi batean, aztergai izan ditugu ikasleei dagozkien aldagaiak, gelako irakasleen eta eskolako gainontzekoen arteko harremana, materialaren eta metodologiaren inguruko hainbat alderdi eta elkartearen beste zerbitzuekiko harremana. Datorren ikasturteari begira, ikasgela bakoitzeko pertsonak lehentasunezko helburuak, hobetu beharreko elementuak eta hori guztia aurrera eramateaz arduratuko den pertsona finkatu dituzte.

1.3 Eguneko Arreta Zerbitzua

2014an, Eguneko Arreta Zerbitzuko zentro eta unitateetarako planifikatutako jarduera guztiak aurreikusitako moduan gauzatu ditugu. Aurten zerbitzu horretan 100 pertsonaz arduratzea iritsi gara.

Iaz gauzatutako lekualdaketa guztien ondoren, egindakoaren inguruko balorazioak egiteari hel diezaiokegu. Oriamendiko unitatearen balorazio positiboa nabarmendu nahiko genuke, adin handieneko eta mugikortasunerako laguntzarik handiena behar duten erabiltzaileez arduratzen dena. Esperientzia hori oso lagungarri izaten ari zaigu profil hori duten pertsonen laguntzaren etorkizuneko planifikazioa hobetzeko.

Proposamena, hain zuzen, 98 erabiltzaileen banaketa ezberdinean datza, baliabideen egiturei eta erabiltzaile eta profesional kopuruari eusten saiatuz eta taldeak kolektibo homogeneoagoa bilakatuz.

Gure zerbitzuaren laguntza jasotzen duten pertsona guztien Bizi Proiektuak aplikatzen jarraitzen dugu; hala, gehien-gehienak ari dira planifikazio - metodologia berri horri onura ateratzen.

Esparru horretan, aipatu behar dugu ere Eguneko Arreta Zerbitzuan TEACCH programari eta Adintzeari eta Urritasunari buruzko trebakuntza espezifiko eskaini dugula, profesionalen eskari handia eragin zuena.

Horrez gain, GUREAKen Zentro Okupazionalerako aldizkatze-praktiken erreferentziazko zentroak aldatu dira, taldeak mantenduz betiere.



 Garrantzitsua da, halaber, gure inguruko prestakuntza-entitateekin daukagun konpromisoari eustea. Horregatik, hamazazpi ikasle praktikak egiten ibili dira eguneko zentro eta unitateetan.

 Guztira 100 pertsonari eman diogu laguntza, 28 profesionalen bidez. Langile horietatik lauk lanaldi partzialeko kontratua dute, lana eta familia bateragarriak izateko kontratuak estaltzen ari baitira, bost zentro eta unitatetan.



25 urtez lanean eta pertsonalki inplikatu ondoren, GAUTENAKo 32 profesional erakundearen eskerrak jaso zituzten.

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA, ZENTROAREN ARABERA

ERDIALDEA	KOKAPENA	ERABILTZAILE KOPURUA	PROFESIONAL KOPURUA
Artolamendi Eguneko Zentroa	Donostia	32	7
Azkarate Enea Eguneko Zentroa	Donostia	23	7
Oriamendi Eguneko Zentroa	Donostia	33	9
Errenteriako komunitatean integratutako unitatea	Errenteria	12	2
GUZTIRA		100	5



I. ZERBITZUAK

1.4 Etxebizitza Zerbitzua

 Une honetan zerbitzua 70 pertsonaz arduratzen da, hainbat etxebizitzatan banatuta daudenak. Erabiltzaileen bat tokiz aldatu baldin bada, zerbitzu horren laguntza jasotzen duten pertsonen ongizatean pentsatuz izan da beti.

 Joan den 2014. urtea bereziki tristea izan zen guztiontzat, Txarako etxebizitzako bizilagun baten heriotza dela eta. Maria Angeles Hernández gaixotasun larri baten ndorioz zendu zen. Guztiok bihotz-bihotzez gogoratuko dugu Marian.

 Halaber, Urnietako etxebizitzako beste kide batek, Matías Luque argentinarrak, agur esan zigun bere jaioterrira itzultzeko. Gure asmorik onenak opa dizkiegu Matíasi eta bere familiari.

 Bi galera horiek Etxebizitza Zerbitzuak bi lagun berri jasotzea ahalbidetu du eta horri

esker zerbitzuaren onuradun izateko dagoen itxarote-zerrenda txikitzea lortu da. Zerrenda hori dela-eta zentro berriren bat irekitzeko beharra handituz doa, eta denbora dezente daramagu horretan lan egiten.



OSE eta FEVASEk antolatutako kontzertuak arrakasta handia izan zuen.

 Atzegi erakundeak antolatutako jardueretan dugun partaidetza aktiboak aurrera jarraitzen du, gero eta jarduera gehiagotan, aukera paregabea ematen digutelako gure zerbitzuaz kanpoko beste pertsona batzuekin harremanetan izateko. Ildo beretik, Urnietako Udalak antolatutako kirol-jardueretan ere parte hartzen ari gara.

 Gure zerbitzuak 70 pertsonari laguntzen die Bizi Proiektuaren metodologia jarrai dezaten eta hori gure arreta gero eta pertsonalagoa izatea ahalbidetzen ari da. Hasiak gara dagoeneko ikuspegi berri horren emaitzak antzematen.

ETXEBIZITZA ZERBITZUA, ZENTROAREN ARABERA

ZENTROA	KOKAPENA	ERABILTZ. KOPURUA
Oriamendi Etxea	Donostia	15
Goizalde	Donostia	14
Zarategi pasealekuko etxebizitza	Donostia	8
Txara	Donostia	12
Azkorte Etxea	Urniet	15
Berio	Donostia	7
GUZTIRA		70



1.5 Familiei Laguntzeko Zerbitzua

 Zerbitzuaren ohiko arlo guztiak lehenagoko baldintza beretan mantendu ditugu.

Dakizuen moduan, zerbitzuak aisialdia eta denbora librearen dituzte ardatz.

FAMILIA TALDEAK		
TALDEA	PARTE HARTZAIL.	EDUKIA
ASPERGER	35 parte-hartzaile	Asperger sindromea duten pertsonen guraso guztiei eragiten dieten gaiak
FAMILIA BERRIAK	20 familia	Elkarri laguntzea
EIBAR INGURUA	15 parte-hartzaile	Inguruko familia berriak
ZUMARRAGA INGURUA	15 familia	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
ASPERGER SINDR. DUTEN HELDUAK	15 pertsona	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
ETIKA FOKU-TALDEA	8 pertsona	Etikarekin lotutako gaietan sakontzea

 Autismoaren Ibilaldi Solidarioa nabarmendu beharra dago: URDINDUZ. Ibilaldia apirilaren 6an egin zen Donostian eta erabat arrakastatsua izan zen.

 Bestalde, Gabonetan Kursaal jauregiko eta FICOBako PIN parkeetan izan ginen, berriro ere. Zarauzko PIN parkeak premia bereziak dituzten haurrentzako saio eskusiboa antolatu zuen lehen aldiz.



Otsailean, GAUTENAK «Kalitate» mailan FEAPSeko ziurtagiria lortu zuen.



I. ZERBITZUAK

 Aurreko urteetan bezala, familiei atsedena emateko ATSEDEN programa eta familiek parte hartzeko GERTU programa garatu ditugu. Aurten, Atsedeen programak iazko maiztasunari eutsi dio.

 Gure iritziz, aisialdia ezinbesteko alderdia da artatzen ditugun pertsonen laguntzeko.

Funtsezkoa da bai garapen pertsonalari, bai gizarteratzeari dagokienez, eta, aldi berean, familiei laguntza emateko balio du.

 Aisialdi-jarduerak gauzatzeko, boluntarioen laguntza ezin estimatuzkoa jasotzen dugu. Lerro hauen bidez, haien ekarpena nabarmendu nahi dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE HART.	MONIT.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA (AIETE) 16:00-20:00	15	7
IGANDEAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	8	2
IGERILEKUA, HAURRAK	DONOSTIA (ALTZA), astelehen eta ostegunetan	8	3
IGERILEKUA, GAZTEAK	DONOSTIA (ANOETA), astelehen eta asteazkenetan	10	2
AISIALDIA, ZARAUTZ	ZARAUTZ (ATZEGiko lokala), astearte eta ostegunetan (ekaina arte)	3	2
LARUNBATAK, HAURRAK	DONOSTIA (BERIO)	12	8
GNO LARUNBATAK	DONOSTIA	6	2

 Era berean, Asperger sindromea duten pertsonekin azkenaldian egindako jarduerak garatzen jarraitu dugu.

ASPERGER			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE HA.	MONIT.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	10	2
UDALEKU IREKIAK	Ibilaldiak uztailan 10:00-14:00	7	2
IRTEERA	SALOUUztailak 26-30	14	3
ANTZERKIA	DONOSTIA (BERIO)	18	3
ALDI BATEKO EGONALDIAK	DONOSTIA (BERIO)	4	1



UDAKO EGITARAUA			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE H.	MONIT.
UDALEKU INTEGRATUAK	GAUTENAtik kanpoko programak AEN duten haurrentzat	10	8
UDALEKU IREKIAK	AEN duten haur eta gazteentzako ibilaldiak	78	38
	Zarautz	5	3
	Elgoibar	7	3
	Arrasate	3	2
	Donostia, gazteak	15	6
	Donostia, haurrak	30	15
	Andoain	4	2
	Irun	7	3
	Hondarribia	8	4
ABUZTUKO UDALEKUAK	Hamabi eguneko egonaldiak ostatu ezberdinetan	113	73
	Abuztuak 1-15, DONEZTEBE (helduak)	14	12
	Abuztuak 1-12, LIZARRA (helduak)	15	10
	Abuztuak 1-12, BILBO (helduak)	10	5
	Abuztuak 1-12, SAN ASENSIO (gazteak)	19	13
	Abuztuak 4-10, BERIO (haurrak)	15	12
	Abuztuak 16-27, DONEZTEBE (haurrak)	13	10
	Abuztuak 16-27, SAN ASENSIO (gazteak)	19	11
	Abuztuak 16-27, LIZARRA (helduak)	13	10

 Familiei Laguntzeko Zerbitzuak, ohiko jarduera horiek antolatzeaz gain, laguntza eta orientabidea ematen die GAUTENako familiei. Jimmy Brosa eta Ainara Sanz (gizarte-langileak) dira zerbitzu horretako langileak.



Familiek antolatutako ekintzen artean, Erniora egindako irteera azpimarratu nahi dugu.



2. JARDUERAK

2.1 Ezagutzaren kudeaketa

-  Urtero bezala, prestakuntzako urteko plana gauzatu dugu. Planean hainbat profesional-entzako eta zerbitzutarako jarduerak bereizten ditugu.
-  Landutako gaietako batzuk laburbilduko ditugu:
 - Etikari buruzko prestakuntza, banako babes-programen kudeaketari buruzkoa, bizi-proiektuari buruzkoa, AENrako tratamendu farmakologikoari buruzkoa, Asperger duten helduen jarduerari buruzkoa, EFQM autoebaluazioari buruzkoa, Merri Palmer garapen - eskalaren azterketari buruzkoa, lidergoari buruzkoa, ofimatikakoa...
 - Bestalde, erakundean sartu diren pertsonentzako oinarritzko prestakuntza programa gauzatu dugu.

2.2 GURASO ESKOLA familientzako prestakuntza-plana

-  2014ko irailean, «Guraso Eskola» izeneko familientzako prestakuntza-plana abiarazi genuen. Urteko azken hiletan hurrengo gai hauek jorratu zituzten:
 - Azterketa neurologikoa Autismo Espektroaren Nahasmenduan. Hizlaria: Esther Zuazo doktorea
 - Sexualitatea eta afektibitatea Autismo Espektroaren Nahasmenduan. Hizlaria: Olatz Aizpuru
 - Jarrera Autismo Espektroaren Nahasmenduan. Hizlaria: Jesus García

- Komunikazioari eta Autismo Espektroaren Nahasmenduari buruzko mintegia. Hizlaria: Marijo Gonzalez
- Komunikazioa eta sozializazioa Autismo Espektroaren Nahasmenduan. Hizlaria: Ana Osa.

2.3 Autismoari buruzko hitzaldi-zikloa

-  Aurten ondoko mintzaldiak izan genituen gurean, guztiak familien eta profesionalen arteko harremanari buruzkoak:
-  Javier Tamarit, psikologoa eta FEAPS adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko erakundearen Espainiako Konfederazioko Bizi Kalitateko Saileko Zuzendaria, Madril, «Familiak: protagonistak komunitate inklusiboak eraikitzeke erronkaren aurrean» mintzaldia aurkeztu zuena.
-  Ana Casas, Deustuko Unibertsitateko irakaslea, «Familiak eta profesionalak: elkarlaneko harremana. Zer espero eta behar dute batzuek besteengandik?» mintzagai izan zuena.
-  Mahai-ingurua: «Familiak eta profesionalak AEN duen pertsonarekin lanean», AEN diagnostikatu dieten pertsonen eta GAUTENAKo familien eta profesionalen parte-hartzearekin.
-  Jende ugari izan zen zikloan, eta oso balorazio ona jaso zuen. Autismoa dutenen senideak, profesionalak, ikasleak eta gaiarekiko interesa dutenak bertaratu ziren.




2.4 URDINDUZ autismoaren ibilaldi solidarioa

 Joan den 2014. urte honetan lehen aldiz egin da Autismoaren Ibilaldi Solidarioa, URDINDUZ izena hartu duena. GAUTENA-ko familiek antolatu zuten ibilaldia eta apirilaren 6an egin zen.

 Ibilaldia erabat arrakastatsua izan zen parte-hartzeari eta antolakuntzari dago-kienez. Jendetzak Donostiako Haizearen Orrazitik Bulebarrerainoko bidea osatu zuen, bertan jai polit baten bidez amaitzeko.

 Ekimen polita izan zen, guztiak elkartzeko balio izan zuena eta hedabideetan eragin handia izan zuena.



GAUTENAK antolatu zuen URDINDUZ Autismoaren aldeko lehen ibilbide solidarioak arrakasta handia izan zuen.

3. URTEKO KONTUAK

3.1. Egoeraren balantzeara

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)

EGOERAREN BALANTZEA

ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA

(eurotan)

AKTIBOA		2.014	2.013	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2.014	2.013
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		4.564.568	4.889.985	A) ONDARE GARBIA		4.756.564	5.047.919
I. Ibilgetu ukiezina		768.470	826.840	A-1) Fondo propioak		294.313	292.572
III. Ibilgetu materiala		3.787.182	4.054.229	I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial		292.572	291.002
VI. Epe luzeko finantza-inbertsioak		8.916	8.916	IV. Ekitaldiko soberakina		1.741	1.570
				A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		4.462.251	4.755.347
B) AKTIBO KORRONTEA		1.217.667	1.174.531	B) PASIBO EZ-KORRONTEA		95.986	99.239
III. Erabiltzaileak eta berezko iharduerako zordunak		62.697	88.060	I. Epe luzeko hornidurak		95.986	99.239
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		454.638	439.112	C) PASIBO KORRONTEA		929.685	917.358
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		700.332	647.359	II. Epe laburreko hornidurak		32.178	15.600
				VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		897.507	901.758
				VII. Epe laburreko periodifikatzeak		0	0
AKTIBOA GUZTIRA		5.782.235	6.064.516	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		5.782.235	6.064.516

3.2. Emaizten kontua

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)

ALDU-IRABAZIEN KONTUA

2.014KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA
(Euro-unitateak)

	2.014	2.013
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak	8.313.388	8.103.792
7. Jardueraren bestelako sarrerak	5.501	1.076
8. Pertsonal-gastuak	(6.316.183)	(6.159.747)
9. Ustiapeneko bestelako gastuak	(2.023.004)	(1.944.146)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(325.418)	(329.290)
11. Ekitaldiko emaitzari egotzitako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	342.766	318.538
14. Bestelako emaitzak	10.083	16.795
A) JARDUERAREN EMAITZA	7.133	7.018
14. Sarrera finantzarioak	96	229
15. Gastu finantzarioak	(5.488)	(5.677)
B) ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(5.392)	(5.448)
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	1.741	1.570
D) EKITALDIKO SOBERAKINA	1.741	1.570

